

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA BILBAO EKINTZA EPEL-REN AURREAN**

.....jaunak/andreak,  
.....NAN zenbakidunak, bere izenean edo  
.....enpresaren ordezkaritzan  
(IFK:.....), zeinak helbide soziala/fiskala edo lantokia Bilbon duen,  
.....  
.....helbidean (telefono-zenbakia eta helbide  
elektronikoa:.....)

**HONAKO HAU ADIERAZI DU BERE  
ERANTZUKIZUNPEAN:**

- Deialdiaren araudia ezagutzen du eta bertan jasotako betekizunak betetzen ditu.
- Deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela, eta ez duela Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako onuradun izateko debekurik, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.2 artikuluan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22eko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitakorik ere.
- Gaur egun egunean ditu Zerga Ogasunarekin, Bilboko Udalarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen zerga-betebehar guztiak, eta Bilbao Ekintza EPELri hori egiaztatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak kontsultatzeko eta biltzeko baimena ematen dio, beren-beregi aurka agertzen bada izan ezik. Horrelakorik gertatuz gero, dokumentu honen amaieran jasoko du.
- Ekonomia-jarduera Bilbon dagoen zentro batean garatzen da.
- Dirulaguntzaren xede den pertsonak ez duela aurreko deialdietan dirulaguntzarik jaso edozein toki-erakunderen eskutik.
- Diruz lagundu daitezkeen kontratutzat jotzeko, kontratuek enplegu-sorrera garbia ekarri behar dute eurekin, diruz lagunduko den kontratuaren xede den langilea lanean hasi aurre-aurreko 6 hiletan enpresak duen batezbesteko langile-kopuruari begira. Toki.erakundeak egiaztatu eta ziurtatu beharko du hori.
- Deialdian araututako laguntzak eskatzen diren kontratazioaren xede den pertsona edo pertsonak ez dira ezkontide, ondorengo edo enpresaburuarekin, enpresa-kontrola daukatenekin, zuzendaritza-karguak dituztenekin edo enpresa eskatzaileko administrazio-organoetako kideekin bigarren mailarainoko odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko harremana duen bestelako senide, ez administrazio-organoetako kide ere.
- Laguntza ekonomikoaren eskaeran adierazitako kontratazioa edo kontratazioak egiteko konpromisoa hartzen du, eskaeran jasotako baldintzetan. Gainera, aplikatu beharreko indarreko lan-araudia eta lan-arriskuen prebentzioaren arloko araudia beteko ditu kontrataziootan.
- Ez du jaso eta ez du jasotzen kontzeptu edo xede bererako inolako diru-laguntza edo

laguntzarik beste Administrazio batetik edo erakunde publiko edo pribatuetatik, Gizarte Segurantzaren hobariak kanpo.

- Onuradun gisa, Bilbao Ekintzari helburu berarekin lortutako dirulaguntza guztien berri emateko konpromisoa hartzen du, bai eta deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko ere, hala eskatzen diotenean.
- Deialdi honetan adierazitako beharrezko baldintzak betetzen ditu.
- Deialdi honen esparruan aurkeztu du dirulaguntzaren eskabidea, eta, gainera, adierazpen honekin batera oinarrien 4. apartatuan deskribatutako dokumentazioa jaso du eta Bilbao Ekintzaren esku ez dagoen eta dirulaguntza behar bezala izapidetzeko eskatzen zaion dokumentazioa aurkezteko konpromisoa hartzen duela, bere erantzukizupean.
- Adierazpen honen xede diren alderdiekin zerikusia duen edozein gorabehera berariaz eta idatziz adierazteko konpromisoa hartzen du.
- Baimena ematen du prozedura honetatik eratorritako jakinarazpen guztiak ..... helbide elektronikoaren bidez egiteko.

....., 20...(e)ko .....aren ...(e)(a)n

Sin.

## DATUEN BABESA

Bilbao Ekintza EPELren Zuzendaritza Nagusiak, Bilboko Udalak erakunde honi bitarteko gisa agindutako administrazio-espeditenteen kudeaketaren esparruan, datu pertsonal hauek tratatzen ditu ahalmen publikoak gauzatzeko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearekin eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin bat etorritz. Interesdunak eskubidea du bere datuak ikusteko, zuzentzeko edo ezabatzeko, bai eta tratatzearen aurka agertzeko edo hori mugatzeko ere. Horretarako, helbide honetara idatzi beharko du: Nafarroa kalea 5-2. solairua, 48001 Bilbo. Interesdunak, halaber, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamatzeko eskubidea du. Informazio gehiago nahi izanez gero idatzi helbide elektroniko honetara: [juridico@bilbaoekintza.bilbao.eus](mailto:juridico@bilbaoekintza.bilbao.eus)

## UDALAREN EDO BESTE ADMINISTRAZIO BATEN ESKU DAUDEN DOKUMENTUAK EGIAZTATZEA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, interesdunak EZ du Bilbao Ekintza EPEL edo beste administrazio publiko baten esku dagoeneko dagoen dokumentaziorik aurkeztu behar; izan ere, EPELeK egoki diren dokumentuak kontsultatu eta bilduko ditu, **salbu eta behean dagoen laukitxoa markatuz interesdunak aurkakoa adierazten badu**. Hala bada, interesdunak aurkeztu beharko du dokumentazio hori.

Jarraian jasotako kontsultak egiteari uko egiten diot (  Bizkaiko Foru Aldundia -  Gizarte

Segurantzaren Diruzaintza Orokorra -  Bilboko Udala), honako arrazoi hauengatik:

---

---

---

---